

okupazio gida



okupazio
oficina de okupacion -bilbo-
bulegoa



OKUPAZIO GIDA



0. SARRERA

Mendez mende, okupazioa herri ezberdinetan garatu da, herri hauen bizitzen burujabetasuna berreskuratzeko. Tresna, taktika eta praktika bat da, eta borrokak bizitzeko era bat.


Aspalditik, Europan eta munduko hainbat txokotan okupazio mugimenduak izan dira garapen kapitalistaren kontrako ikurra, herri bakoitzaren mugimendu sozial zein politikoari ekarpena eginez. Okupazioa, jendarte esparru zabalek bere egin duten tresna politikoa izanik, gaur egun pairatzen dugun menpekotasun zein suntsiketa pertsonalari aurre egiteko tresna izan da.

Bizimodu berri bat eraikitzeko, garapen urbanistikoari stop esateko, jabetza pribatuaren aurrean alternatibak irudikatze eta praktikan garatzeko tresna bat. Kontsumo kulturari zein diruaren irabazi nahiari aurre eginez, okupazioa, autogestioaren praktika iraultzailean oinarrituz, gaurko ekonomia dominantearen hatzaparretatik ateratzen doa.

1. LEHENENGO PAUSUA: ETXEA BILATZEN

Etxebizitzaren egoera ikertu. Etxea hutsik dagoela ziurtatu. Azken urteetan erabili izan ez den etxea, ez du eguneroko mantentzerik, inolako gestiorik eta auzoarentzat leku hila da; beraz okupatzeko baldintza onak ditu.

Honetarako bide ezberdinak erabil ditzakegu: auzokideekin hitz egitea, postontzia gainezka dagoen begiratzea, atean pegatinaren bat jartzea atea eta markoaren artean ea norbaitek atea irekitzen duen jakiteko...



- Bilatu beharreko informazioa honako hau litzateke:

- Jabegoaren erregistroa: Etxearen ezaugarrien ohar simple bat eskatu, jabea, atzeratutako kontuak... 2 jabetza mota desberdintzen dira:
 1. Jabetza publikoa: administrazio publikoen espazioak (Diputazioa, udaletxea, aurrezki kutxak...); hiritarren espazioak.
 2. Jabetza pribatua: inmobiliariak, banketxeak, konstrukturak eta partikularrak.
- Merkatal erregistroa: Jabetza elkarteren batena izatekotan (enpresak), bazkideak nortzuk diren ezagutu behar da nori aurre egiten ari garen jakiteko.
- Hirigintzako departamendua: etxebizitzaren katalogazioa jakiteko, obra baimenik badagoen, etxearen hondamen dekretua, eraiste aginduak, salaketak, plan bereziren baten barnean dagoen...
- Besterik: jabeak kontribuzioa ordaintzen duen ala ez, argindarran alta emanda daukan, ura, komunitatea ordaintzen duen...



Auzo elkarteek etxearen inguruko informazio zuzena izan dezakete, beraien aholku eta informazioa oso baliagarriak izan daitezke.

- Etxean sartzeko plana ondo egin:

- Zein ordutan sartuko garen (gauean sartzen bagara jendeak lapurrak garela pentsatuko du, auzokideak etxean dauden ala ez kontuan hartzea...).
 - Aurretiaz auzokideekin hitz egingo dugun ala ez.
 - Nondik sartuko garen (lehio batetik, atetik, barruko patiotik...)
 - Sartzeko behar ditugun gauzak ondo lotu: bihurgailuak behar izanez gero, zarraila berria, linterna...
 - Kontuan eduki sartzean aspektu legalak, indarra erabili behar badugu.
- Etxean sartu aurretik Okupazio Bulegoarekin, Gazte Asanbladarekin edota auzoko beste kolektibo batzuekin hitz egitea guztiz gomendagarria da, bai esperientzia izan dezaketelako, laguntza jasotzeko sartzeko orduan, balizko desalojo bati erantzuteko... Okupazioa ekintza kolektibo bilakatu behar dugu!
- Oso garrantzitsua da etxean sartu baino lehen gauzak ondo antolatzea!

2. OKUPAZIOAN BERTAN

- Kontu batzuk garrantzitsuak dira. Arazo gehienak sartzekoan agertzen dira. Zarraila ikutzea baino hobea da beste sarrera batzuk bilatzea (patioak, lehioak...).



- Behar ditugun tresnak ondo hautatu, beraz saiatu behar direnak baino gehiago ez eramaten. Gomendagarria da erabili ostean ahalik eta azkarren desagertaraztea.
- Behin barruan, etxerako sarbideak blokeatuta daudelaz ziurtatu behar gara. Kontuan hartu etxera sartzearen lehen unek delikatuena direla, desalojo zuzena jasan dezakegulako. Okupazioa publikoa egitea zein ez egitea erabaki arren, gomendagarria da okupazioa aldarrikatzen duen pankarta bat gainean eramatea lapurtzat har ez gaitzaten. Batzuetan ekidinezina da etxean sartzea zaratarik egin gabe eta auzokideak izutu gabe, beraz, hau ekiditeko beraiekin hitz egitea edota jenderik ez dagoen ordutegietan sartzea ideia ona izan daiteke.
- Lehen bait lehen bertan bizi garenaren normaltasun ideia bat ematea komeni da.



- Garrantzitsua da hau egin ostean etxearen egoeraren argazkiak hartzea edota bideoa grabatzea, badaezpadako desalojo baten aurrean edota aurreragoko balizko epaiketa batean baliagarriak izan daitezkeelako, gure presentzia jabearen kalterako baino bere onurarako izan daitekeela frogatzeko.

- Etxean sartu eta gero polizia agertzen baldin bada, normaleena da okupazioaren atestatu polizial bat egitea. Jabearekin, kontaktuan jartzen saiatuko dira eta salaketa jartzeko aholkua emango diote. Gogoratu behin etxean gaudela polizia etortzen baldin bada identifikazio eske, ez dagoela atea irekitzeko derrigortasunik baldin eta ez badute epaileak sinatutako agindurik ekartzen. Beraz, ez diegu inolaz ere atea irekiko, nahiz eta mehatxuka aritu. Garrantzitsua da ahal den eina etxean bertan ez identifikatzea.
- Kasu txarrean poliziala mobilizatzeraz ekingo dio, eta hiru egoeratan aurkitu gaitzke:
 - 1) Poliziaren nagusiren batek epailearen agindurik gabe desalojoa aurrera eramatea agindu du, ilegal da.
 - 2) Goardiako epaileak desalojo agindua eman duela, guztiz legala.
 - 3) Jabetza publikoko espazioetan udaletxeek bultzatutako desalojo azkarrak egin ditzateke, soilik okupazioaren ondorengo 48 orduetan.

3. OKUPATU ONDOREN

Lehenengo egunetan etxean beti norbait dagoela ziurtatu. Segurazki, etxetik sartu edo irtetzen den norbait identifikatzen saiatuko dira; kasu horretan zitazioa heltzera itxaron dezakegu, edota guk geuk inizatiba hartu eta kasua zein epaitegiren esku dagoen ikertu gure aurkako salaketarik dagoen jakiteko.

Gogoratu orain hori dela gure bizilekua eta horrek berarekiko eskubide batzuk eskuratu ditugula esan nahi duela, beraz handik ateratzeko epaile baten agindupean izan behar da. Tinko erakutsi; argi ta garbi utzi behar dugu hori gure etxea dela.

Epaiketari begira, garrantzitsua izango litzateke hor bertan bizi garela esaten duen paper ofizial bat edukitzea, eta

administrazioak berak onartzen duela. Beraz, erroldatzea komenigarria izango da.

Kontuan eduki behin lehenengo desalojoa gertatua, poliziaren prezintoa bersartzeko apurtzen badugu, berretzean eroriko garela. Orduan bigarren okupaziotik aurrera isunak maila altuenetara igo daitezke.



Argia eta ura "engantxatzea" iruzur egiteaz akusazioa ekar dezake, hala ere, eskubide zibilez eramaten den isuna besterik ez da izango.

Edozein kasutan, hobe da ondo antolatua egotea etxera sartu baino lehen.

IDENTIFIKAZIORAKO AHOLKUAK:

- Ez zaude NAN-a ganean eramatera beharturik, baina ez badaramazu komisaldegira eraman zaitzakete zure identitatea egiaztatzeko.
- Segurtasun enpresetako langileek ezin zaitzakete identifikatu, baina bai geldituarazi ondoren poliziak identifika zaitzan.
- Identifikatzen zaituztenean honen zergaitiak azaldu behar dizkizute, zeren susmopean edota zein delitu uste duten burutu duzula.
- Komisaldegira eramaten bazaituzte, gogoratu ez zaudela atxilotuta, erretenituta baizik. Ez zaude behartuta inolako galderari erantzutera ezta ezer sinatzera ere.

- Egoera ematen bada, lasaitasuna. Gogoratu intimidazioarekin jolasten dutela, ezjakintasunarekin eta beldurrarekin.



DESALOJOAN ZEHAR ATXILOKETA EMATEN BADA:

Hurrengo "eskubideak" dituzu:

- Zure konfidantzako pertsona bat zure atxiloketaz informatua izatera, pertsona honen telefonoa poliziari emanaz.
- Mediku batek ikus zaitzan.
- Interprete bat izatea.
- Konfidantzako abokatu bat izendatzea edo ofizioko turnokoa eskatzea.
- Poliziak egiten dizkizun galderei ez erantzuteko eskubidea. Epaillearen aurrean deklaratu nahi bada bakarrik deklaratzenda, eta lehenago zure abokatuarekin era "erreserbatu" batean elkarrizketatu zintezke aholkatu zaitzan.
- Atxiloketa kontrarrestatzeko, habeas corpus bat jarri dezakezu zure abokatuarekin. Epailleak onartzen badu, zuzenean aske geratzen zara atxiloketa ilegala ulertzeagatik.

4. PROZEDURA JUDIZIALAK

Ohikoena behin espazioa okupatuta jabeak hau berreskuratzeaz arduratzea da. Posiblea da prozedimendu administratibo, zibil edo penal bat abiaraztea. Prozesu legal baten barnean dagoen okupa oro, gaztetxe, gazte asanblada edo okupazio bulegoarekin kontaktuan jarri behar da; emaitza txar batek eraginak ekarri baitditzake besteentzat.

Normalean legeek ez dute zerikusirik ez justizia ezta senarekin ere ez, eta bere aplikazioa arbitrarioa izaten da eta interes politikoei lotua. Ez zaitez inoiz joan bakarrik administraziora edo epaitegietara tramiteak egitera.



Hiru prozedura mota daude:

Prozedura penala:

Abandono egoeran dauden higiezinok okupazioa tipifikatzen du, zeinek espekulazioa eta etxebizitzarako sarbide beharra duen gizarte sektorearen arteko gatazka insentsibilizatzen duen.

Prozesu penala etxe okupatu bat desalojatzeko edota desalojo batean etxe barruan identifikatua izan den jendearen aurka egiteko ireki daiteke.

Egiteak ikertzearen arduraduna Instrukzio epaitegi bat da, eta delitu zantzuak daudela ebazten badu ekintzak zigor epaitegi

batera trasferituko ditu ahozko bista irekitzeko. Poliziari protagonismo handiagoa ematen zaio, zeinek identifikazioak egin ditzakeen eta baita azkar desalojatu nahiz eta epaiketa ez ospatu.

Esperientziak esaten digu askotan norbait identifikatzen dutela eta gero ez diotela epaitegiari jakinarazten, edota ezin dute inor identifikatu eta epaitegiak desalojo bat erabakitzen du aurretiaz jakinarazi gabe. Prozesuak artxibatu beharra ere gertatzen da, etxean bizi dela deklaratzeko duen inor identifikatzerik lortu ezagatik.

Pausuz-pausu:

1. Jabeak salaketa bat jartzen du eta hau instrukzio epaitegira doa, zeinek diligentzia berriak irekitzen dituen.
2. Behin instrukzio epaitegiak lehenengo ikerketak eginda, espedientea fiskaltzara pasatzen da honek diligentziak eska ditzan (deklarazioa, badaezpadako desalojoa edota artxiboa eska dezan) edo salaketa idatzia egin dezan (ahozko epaiketa esak dezan).
3. Espedientea epaitegietara bueltatzean, instrukzio epaileak aukera ezberdinak ditu:
 - Deklaratzera zitzatu
 - Badaezpadako desalojoa dekretatu, eraispen arriskua dagoela argudiatuz...
 - Kasua artxibatu arrazoi ezberdinengatik.
 - Ahozko epaiketa. Instrukzio epaileak, penaleko epaitegira bidaliko ditu aktuazioak. Ahozko honetan ditugun frogak aurkeztu behar ditugu deliturik ez dagoela frogatzeko. Jabearen partetik egindako utzikeriaren frogak erakuzteko leku aproposa da prozedura penala. Baita jende ezagunaren okupazioaren aldeko deklarazioak eraginkorrenak diren lekua ere. Eginbeharra izango litzateke jabea bultzatu etxeari zer funtzio emango dion esatera, eta agerian utzi etxearen utzikeriaren egoera antisoziala.

Prozedura zibila:

Jabeek abiarazten dute eskaera judicial baten bitartez. Epaitzen dena kontraturik gabeko egoitza bat da, eta bertan egoten jarraitu ahalko duzue.

Lehen instantziako epaitegian garatzen da epaiketa hau.

Prozesuak pausuak oso ezarriak ditu. Prozesua ia ezinezkoa da irabazteko, baina hala ere ez da posiblea desalojoa edo desautioa horretarako data duen sententziarik gabe, eta hau bizikideei komunikatu behar zaie.

Pausuz-pausu:

1. Izango duzuen lehen berria SACC-ena (Servicios de Actas de Comunicación Civil) izango da. Agente judicial bat eskaeraren kopia batekin helbidean aurkeztuko da.
2. Inork ez badu eskaera hartzen, dagokion epaitegira bueltatzen dute prozesua hasteko, epaiketarako data zehaztuz nahiz eta ez egon inor identifikaturik. Egokiena eskaera eskuragarri izatea litzateko inor identifikatzeko beharrik egon gabe, prozesu legalaren inguruko informazioa izateko.
3. Honelako epaiketetan bi aukera daude abokatu aukeratzeko orduan: konfidantzako bat edo "dohako justizian" bat eskatu. Garrantzitsua da kontuan hartzea konfidantzako abokatu bat izatea. Ofizioko abokatuekin idazki guztien gainean egon behar da, eta soilik konfidantzako abokatuek ziurtatzen digute esperientzia okupazioaren alorrean eta kasuarekiko dedikazioa. Ofizioko abokatuek txanda egitera apuntatzen dira esperientzia eta meritoak lortzeko. Askotan babes duin bat egin baino, prozedurak epe motzean ixten saiatzen dira.
4. Epaiketa antzerki bat izan ohi da non jabeek arrazoia ematen zaien. Hau da lortu ahal izan ditugun frogak

aurkezteko unea (eraikinaren egoera eta hutsik daraman denbora, hiri kontribuzioarekiko jabeek dituzten ordainketa faltak, argia, ura, komunitatea...). Argi utzi behar da jabeak ez duela interesik eraikinean eta auzoarentzat horrek suposatzen duen kaltea.

5. Sententziak desalojo/desauzioa zehazten du normalean.
6. Sententzia publikatu ondorengo 10 egunetan helegitea aurkezterik badago. Epaitegian helegite iragarpen bat aurkeztu behar da instantzia gorenean, audientzia probintzian. Iragarpena egin ondoren 30 egunetako epea dago helegitea bera aurkezteko. Dena den, jabeek badaezpadako desalojoa eska dezakete audientziak sententzia konfirmatu ala ez baino lehen.
7. Sententzia firme bat egon ez arte, okupatutako espazioan egoteko zilegitasun osoa daukagu eta bidegabeak aurkezten zaizkigun lege batzuei desobedientzia zibila egitearena.

Prozedura administratiboa:

Inolako epaitegirik parte hartzen ez duen prozesu bat da.

Ez da abokaturik izendatu behar, eta soilik okupaturiko espazioa publikoa denean ematen da.

Edozein administrazio publikok dauka bere espazioa epaile batek baimendu gabe desalojatzeko agintzearen potestatea, beti ere hurrengo egoeretakoren batean aurkitzen bagara:

- Administrazio jabeak bere ordenantzetan okupatu osteko lehenengo 48 orduetan desalojatzeko aukera badauka, arduradun politiko batek sinatutako agindu batekin. Beraien polizia bidali behar dute. Guk agindu judiziala eskatu behar dugu hala ere.

- Desalojo tramiteak okupazioaren lehenengo urtean egitea, behin denbora hori pasatuta jada ez da eskumen administratiboa, judiziala baizik.
- Prozedura hasten dela bai okupei jakinarazia izana bai dagokion boletin ofizialean publikatua agertzea. Bide administratiboak desalojoa bizilagunei idatziz komunikatua izatera behartzen du.

Pausuz-pausu:

1. Administrazioak kaleratze administratiboko expediente bat irekitzen du, 10 eguneko epearekin helegiteko.
2. Behin helegitea erabakita, eta gure interesen aurkakoa bada, seguraski desalojo dekretua notifikatuko digute hura aurrera ateratzeko 10 eguneko gutxieneko epearekin.

Gero eta denbora gehiago pasatu, gero eta eskubide gehiago hartzen dituzte bizilagunek, eta beraz, betekizun gehiago bete behar dituzte administrazioek botatzeko.

5. OKUPATZERA GOAZ

Aski da, nazkaturik gaude zapalduak izateaz, nazkaturik gaude gendarte honek gaitazun ekonomikoaren arabera sortzen dituen desberdintasunez, nazkaturik gaude gutxi batzuk denonak diren eskubideak bahitu eta merkatuan nola askatzen dituzten ikusteaz, nazkaturik gaude geure bizitzen garapen orekatu eta integrala lortzeko geure bizitzak hipotekatu behar izateaz...

Prekarietate sozialera bultzatu gaituen eredu ekonomiko honen aurrean, duintasun eta errebeldiarekin erantzungo diogun sektore herritarrak okupazioaren tresna geure egunerokotasunean txertatu eta burgesiak lapurtutako espazio zein eskubideak berreskuratzeko borrokan lagungarria izango da.

Soilik sistemak geure bizitzetan sortutako kontraesanak gaindituz lortuko dugu gaur egun sistemaren kontraesan nagusiena gainditzea; jabetza pribatuarekin apurtzea eta herritarren eskubideak ondasun publikora bideratzea.

ANTOLATU ETA OKUPATU

guia de okupacion



okupazio
oficina de okupacion -bilbo-
bulegoa



GUIA DE OKUPACION



0. INTRODUCCION


A lo largo de los años, la okupación se ha desarrollado en distintos pueblos como un modo más de recuperar su soberanía. Es un instrumento, una táctica y una práctica, y una forma de vivir las luchas.

Desde hace tiempo, en Europa y en otros rincones del mundo los movimientos de okupación han sido bandera de la lucha contra el capitalismo, haciendo su aportación al movimiento social y político de cada pueblo. La okupación, como herramienta política que amplios sectores sociales han hecho suya, es una vía para hacer frente a la dominación y desestructuración como personas que vivimos hoy en día. Un instrumento para construir un nuevo modo de vida, para decir stop al desarrollo urbanístico, para crear alternativas ante la propiedad privada y para ponerlas en práctica.

Haciendo frente a la cultura del consumo y al afán de lucro, la okupación, basándose en la práctica revolucionaria de la autogestión, va sustrayéndose a las garras de la economía dominante actual.

1. PASO PREVIO: BUSCANDO CASA

Informarse bien de la situación del inmueble. Asegurarse de que la vivienda esta vacía. Aquel espacio que no se ha utilizado durante los últimos años, no recibe mantenimiento periódico, ninguna gestión y supone un espacio muerto para el barrio; por tanto reúne las condiciones favorables para ser ocupado.



Para ello podemos usar diferentes métodos: hablar con l@s vecin@s, mirar si el buzón esta lleno, poner una pegatina entre la puerta y el marco para saber si alguien la suele abrir...

- **La información que hay que buscar sería:**

- Registro de la propiedad: solicitar nota simple con las características de la finca, propietario, asuntos pendientes... Hay dos tipos de propiedad:
 1. Propiedad pública: espacios de las administraciones (diputación, ayuntamiento, cajas de ahorros,...); espacios de la ciudadanía.
 2. Propiedad privada: inmobiliarias, bancos, constructoras y particulares.
- Registro mercantil: en el caso de que la propiedad sea de una sociedad (empresa), hay que conocer quiénes son los socios para saber a quién te enfrentas.
- Departamento de urbanismo: para averiguar la catalogación de la vivienda, si existe solicitud o permiso de obra, decreto de ruina, órdenes de derribo, denuncias, si está o no dentro de algún plan especial de ordenación urbana...
- Otros: averiguar si el propietario paga o no la contribución, si está dado de alta en la luz, el agua, si paga el recibo de la comunidad...

Las asociaciones de vecin@s pueden tener información directa del inmueble, su consejo e información pueden ser muy valiosos.



- **Pensar bien la forma de entrar en la casa:**

- A que hora entraremos (si entramos por la noche la gente pensará que somos ladrones, tener en cuenta si l@s vecin@s están en casa, ...)
- Si hablaremos antes con l@s vecin@s o no
- Por donde entraremos (por la ventana, la puerta, el patio interior...)
- Atar bien las cosas para entrar: convertidores, cerradura nueva, linterna,...
- Tener en cuenta los aspectos legales al entrar, si hay que usar la fuerza.

- Antes de entrar a la casa, es recomendable hablar con la Oficina de Okupacion, Gazte Asanblada y con otros colectivos del barrio; ya que pueden tener experiencia, te pueden ayudar a la hora de entrar y de un desalojo,...

Tenemos que convertir en colectivo el movimiento de okupacion.

- Es muy importante organizar todo muy bien antes de okupar.



2. MOMENTO DE LA OCUPACION

- Se tienen que tomar algunas **precauciones**. La parte más problemática será la de entrar. Si existe la opción de entrada a la casa por algún lugar que no implique forzar la cerradura (patios, ventanas abiertas...) es mejor tomarla.
- Es mejor alejar lo antes posible del lugar las herramientas que hayamos tenido que utilizar.
- Una vez dentro, hay que asegurarse de que todos los accesos a la casa estén bloqueados. Estos son los momentos más delicados, donde corremos el peligro de ser pillados *in fraganti*. Llevar una pancarta que reivindique la ocupación puede servir para que no nos acusen de robo con fuerza. Si parece casi imposible entrar sin hacer ruido y alertar a l@s vecin@s puede ser buena idea intentar conseguir su apoyo.
- Interesa transmitir cuanto antes idea de normalidad, de que se vive ahí.
- Después de cerrar bien todas las entradas posibles a la casa, es importante sacar fotos o grabar en video su estado.
- Luego se podrá utilizar como prueba (de cara a un desalojo preventivo) de que tu presencia en la casa no sólo no es un problema, sino que redundará en beneficio de quien resulte ser el/la propietari@ de la casa.



- Si después de entrar a la casa aparece la policía, lo más habitual es que realicen un atestado policial de la ocupación. Intentarán ponerse en contacto con l@s propietario@s y les insistirán en poner una denuncia en comisaría. Si la policía pide a l@s ocupantes que se identifiquen, como moradores/as tienen derecho a no abrir la puerta ni facilitar el acceso al lugar. Nunca les abras la puerta aunque te estén amenazando. Para que la policía pueda entrar legalmente necesita una orden firmada por un juez. Es importante no identificarse dentro de la casa.



- En el peor de los casos puede haber un despliegue policial, lo que indicaría:
 1. Un mando o alto cargo ha decidido hacer un acto ilegal, como es ordenar el desalojo sin orden judicial.
 2. El juez de guardia ha firmado una orden de desalojo dentro de la legalidad.
 3. En los espacios de propiedad pública se pueden realizar desalojos rápidos promovidos por los ayuntamientos, pero sólo durante las primeras 48 horas de la ocupación.

3. DESPUES DE OKUPAR

Hay que asegurarse de que haya siempre alguien en la casa durante los primeros días. Casi seguro, intentarán identificar a alguna persona que entra o sale de la casa; en ese caso, se puede esperar a que llegue la citación o tomar la iniciativa de investigar en el juzgado (en el departamento de incidencias o en el decanato) para informarse si existe alguna denuncia hacia vosotr@s.

Recuerda que ahora ese es tu domicilio, por lo que tienes ciertos derechos adquiridos y para sacarte legalmente tiene que ordenarlo un juez. Mostráros firmes, dejad claro que esa es vuestra casa.

De cara al juicio, podría ser importante obtener un certificado oficial de cómo nosotr@s hemos estado viviendo en esa casa y la misma administración pública nos lo reconoce. Para eso, el empadronarse sería un paso adelante.

Ten en cuenta que después de un desalojo, si se rompe el precinto de la policía para volver a entrar, se considera desobediencia a la autoridad. Al tratarse de delitos, puede incurrirse en reincidencia, de modo que a partir de la segunda okupación las penas podrían ir al grado más alto de las mismas.



“Enganchar” el agua y la luz puede ser motivo de que nos acusen de defraudación, pero no deja de ser multas o sanciones no penales que se resuelven por lo civil.

En cualquier caso, siempre mejor estar organizad@ antes de ocupar la casa.


CONSEJOS EN CASO DE IDENTIFICACIÓN:

- No estás obligad@ a llevar el DNI encima, aunque si no lo llevas pueden trasladarte a comisaría para comprobar tu identidad.
- L@s vigilantes de las empresas de seguridad no pueden identificarte, aunque sí retenerte para una posterior identificación por parte de la policía.
- Cuando te identifican han de especificar los motivos por los cuales lo hacen, bajo que sospechas o qué delito creen que puedes haber cometido.
- Si te llevan a comisaría, recuerda que no estás detenid@, sólo retenid@. No estás obligad@ a responder ninguna pregunta ni a firmar nada.
- Si se da esa situación, mucha calma. Recuerda que juegan con la intimidación, el desconocimiento y el miedo.

CONSEJOS EN CASO DE DETENCIÓN DURANTE EL DESALOJO:

Tienes los siguientes “derechos”:

- A que una persona de tu confianza sea informada de tu detención, dándole el número de teléfono de ésta a la policía.
- A ser asistid@ por un/a médic@
- A un/a intérprete
- A designar abogad@ de confianza o solicitar un@ del turno de oficio



- A no contestar a las preguntas que te haga la policía. Sólo se declara ante el juez si se quiere declarar, y antes podrás entrevistarte "reservadamente" con tu abogad@, que te asesorará.
- Para contrarrestar la detención, puedes interponer con tu abogad@ un *habeas corpus*. Si el/la juez lo acepta, quedas inmediatamente en libertad al considerarse ilegal la detención.

4. PROCEDIMIENTOS JUDICIALES

Es habitual que l@s propietari@s intenten recuperar un espacio okupado. Es posible que inicien algún procedimiento, de tipo administrativo, civil o penal. Tod@ okupa que sea parte en un proceso legal debe ponerse en contacto con un gaztetxe, gazte asanblada u oficina de okupación, pues una decisión desfavorable de los tribunales puede empeorar las cosas para l@s demás.

A menudo las leyes nada tienen que ver con la justicia o el sentido común, sino que su aplicación es arbitraria y está sujeta a los intereses políticos o económicos. Nunca vayas sol@ a la hora de hacer trámites en la administración o dependencias judiciales.

Hay tres formas de procedimiento:

Procedimiento penal:

Tipifica como delito la ocupación de inmuebles en situación de abandono, invisibilizando el conflicto existente entre la especulación y la necesidad de un amplio sector de la población de acceder a una vivienda.

El proceso penal puede abrirse tanto para desalojar una casa ocupada como contra la gente que ha sido identificada dentro de la casa durante un desalojo.

El juzgado encargado de investigar los hechos es un juzgado de instrucción, y en caso de considerar que existen indicios de delito traspasará las actuaciones a un juzgado de lo penal para abrir vista oral. Se da mayor protagonismo a la policía, que por orden judicial puede hacer identificaciones e incluso desalojar rápidamente sin que se haya celebrado el juicio.

La experiencia nos dice que muchas veces identifican a alguien y no comunican esa identificación a los juzgados, o bien no logran identificar a nadie y el juzgado determina un desalojo sin notificarlo con anterioridad. Sucede también que deben archivar procesos porque no lograron identificar a nadie que declare ser habitante del inmueble.

El procedimiento avanza según los siguientes pasos:

1. El propietario interpone una denuncia y ésta irá a parar al juzgado de instrucción, que abre diligencias.
2. Una vez el juzgado instructor hace las primeras investigaciones, pasa el expediente a la fiscalía para que pida diligencias (solicite declaración, desalojo cautelar, o pida el archivo de la causa) o efectúe directamente escrito de acusación, pidiendo el juicio oral.
3. Cuando el expediente vuelve a los juzgados, el juez instructor tiene varias opciones:
 - Citaros a declarar
 - Decretar el desalojo cautelar, argumentando que existe peligro de derrumbe, por ejemplo.
 - Archivar el caso por diferentes razones (por no considerar los hechos constitutivos de delito)
 - Celebrar juicio oral. El/la juez de instrucción enviará las actuaciones a un juzgado de lo penal. Es en la vista oral donde hemos de presentar las pruebas para demostrar que no se está cometiendo ningún delito.

En los procesos penales es donde es más efectivo presentar todas las pruebas del estado de abandono del inmueble por parte del propietario, y donde las declaraciones de personalidades apoyando esa okupación tienen más peso. Se trataría de exigir a la propiedad que justifique la utilidad que le quiere dar al inmueble y poner de manifiesto el carácter antisocial del abandono de la finca, etc.

Procedimiento civil:

Lo inician l@s propietario@s mediante una demanda judicial.

Lo que se juzga es vuestra estancia sin contrato en la casa, y podéis seguir permaneciendo en ella.

Es en el juzgado de primera instancia donde se desarrolla este juicio.

El proceso tiene los pasos muy establecidos. Este proceso es prácticamente imposible de ganar, pero aún así no es posible el desalojo o desahucio hasta que no haya una sentencia con fecha para ello, y ésta debe ser comunicada a l@s ocupantes.

Paso a paso:

1. La primera noticia que tendréis será una notificación de SACC (Servicios de Actas de Comunicación Civil). Un agente judicial se presentará en el domicilio con copia de la demanda.
2. Si nadie recoge la demanda, la devuelven al juzgado correspondiente para comenzar el proceso, fijándose la fecha de celebración de juicio aunque no haya ninguna persona identificada. Lo más oportuno sería tener acceso a la demanda sin necesidad de que alguien se identifique, para tener información acerca del proceso legal.

3. En este tipo de juicios hay dos opciones a la hora de elegir abogado: un@ de confianza, o solicitarlo en "justicia gratuita". Es importante no tomar a la ligera la decisión de tener un@ abogad@ de confianza. Con l@s abogad@s de oficio hay que estar muy al corriente de todos los escritos, y sólo l@s abogad@s afines aseguran experiencia en el tema de okupación y dedicación al caso. L@s abogad@s de oficio se apuntan al turno de oficio para tener una experiencia y hacer méritos ante los jueces. Muchas veces intentan cerrar los procesos con los mínimos trámites posibles antes de llevar una digna defensa.
4. El juicio es una pantomima donde se da la razón siempre a l@s propietari@s. Es el momento de presentar todas las pruebas que hayamos podido conseguir (el estado del inmueble y tiempo que llevaba abandonado, impagos por parte de l@s propietari@s de la contribución urbana, luz, agua, comunidad...). Hay que dejar claro que el/la propietari@ no tenía interés en el inmueble y el grave perjuicio que eso supone para el barrio.
5. La sentencia suele determinar el desalojo/desahucio.
6. Cabe un recurso de apelación hasta 10 días después de publicada la sentencia. Hay que presentar en el juzgado un anuncio de recurso en la instancia superior, la audiencia provincial. Tras el anuncio se tienen 30 días para interponer el recurso como tal. Aún así, l@s propietari@s pueden pedir el desalojo provisional antes de que la audiencia confirme o no la sentencia.
7. Mientras no haya una sentencia en firme, tenemos toda la legitimidad para permanecer en el espacio okupado y hacer uso de la desobediencia civil ante unas leyes que se presentan injustas.

Procedimiento administrativo:

Se trata de un proceso en el que no interviene ningún juzgado. No se necesita designar abogad@, y sólo se dan cuando la propiedad okupada es pública.

Cualquier administración pública tiene la potestad de ordenar el desalojo de sus propiedades sin que un juez lo autorice, siempre que nos encontremos ante alguna de estas situaciones:

- La administración propietaria contemple en sus ordenanzas la posibilidad de desalojar durante las primeras 48 horas de okupación, con una orden firmada por un responsable político. Deben enviar a su propia policía. Nuestra defensa pasa por exigir siempre la orden judicial de entrada.
- Que los tramites de desalojo se realicen dentro del primer año de ocupación, una vez pasado ese tiempo ya no es competencia administrativa sino judicial.
- Que se haya notificado que comienza el procedimiento tanto a las personas ocupantes como que aparezca publicado en el boletín oficial oportuno. La vía administrativa obliga a que el desalojo sea comunicado por escrito a l@s ocupantes.

Paso a paso:

1. La administración abre un expediente de desahucio administrativo, contra el que se dispone de 10 días para recurrir.
2. Una vez resuelto el recurso, y si es contrario a nuestros intereses, seguramente notificarán el decreto de desalojo con un plazo mínimo de 10 días para llevarlo a cabo.

Cuanto más tiempo pasa, más derechos consolidan l@s ocupantes, y por lo tanto, más requisitos tienen que cumplir las administraciones para echarlos.

5. VAMOS A OKUPAR

Vale ya, estamos hart@s de dejarnos pisar, de las diferencias que crea la sociedad según el poder adquisitivo, de ver como un@s poc@s hacen negocio con los derechos que se nos niegan, estamos hart@s de hipotecar nuestras vidas...

Frente a la precariedad social a la que nos impulsa este sistema económico, les daremos dignidad y rebeldía. Los sectores populares haremos de la herramienta de la okupación nuestro día a día, recuperando así los espacios y derechos robados por la burguesía.

Solo superando las contradicciones que crea en nuestras vidas el sistema, conseguiremos romper con la propiedad privada y hacer riqueza popular nuestros derechos.

ANTOLATU ETA OKUPATU